




# ISPILUAREKIN SOLASEAN

Doinua: Nigarrez sortu nintzen I

Neurria: Lau puntuko txikia (ip) / Zortziko txikia (hg)



Maddi Ane  
Txoperena Iribarren

- 1 Ispilutxo, zer nago: argal edo lodi?**  
Nondik begiratzen den izaten da **hori...**  
Hankak zauli dituzu: altxa ta **erori**  
Gorputz batek behar du sentitzea **ongi.** (bis)
- 2 Tixerta hau ez ote da neretzako motza?**  
**Horrenbertze kolorek ematen dit lotsa!**  
Maite, arropa zer den pentsa zazu **ontsa:**  
ematen ote dizun bero edo **hotza.**
- 3 Pikortaz beterik dut, ispilu, bisaia!**  
Ba zabaldu ezazu begien **paisaia**  
beti izan zara-ta neska hain **alaia**  
Iribarre egiteko baduzu **garaia!**
- 4 Zu bezalako aunitz daude Instagramen...**  
Baina filtroek utzi dituzte **nabarmen**  
Nahiz eta ez dizudan hatzez **like emanen**  
nik bederen ez dizut gezurrik **erranen.**

